

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4517

134/2023 DEKRETUA, irailaren 19koa, Nekazaritzako Europako Berme Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen Erakunde Ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen Dekretua aldatzekoa eta 233/2011 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako laguntzei buruzkoa («Elkarteak» programa), indargabetzekoa.

Kontseiluaren ekainaren 21eko 1290/2005 zenbakidun (EE) Erregelamenduak, zeina nekazaritza-politika erkidearen finantzazioari buruzkoa baita, «NBEF» Nekazaritzaren Europako Berme Funtsa eratu zuen, nekazaritza-politika erkidearen eremuan ezarritako nekazarien zuzeneko ordainketak, merkatuko neurriak eta bestelako neurriak eta landa-garapenerako programak finantzatzera bideraturiko «LGENF» Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa finantzatzeko. 1290/2005 (EE) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak Batzordearen ekainaren 21eko 885/2006 (EE) Erregelamenduaren bitartez –Kontseiluaren 1290/2005 (EE) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen– ezartzen dira, erakunde ordaintzaileen eta bestelako organoen baimenari eta NBEF eta LGENFen kontuen likidazioari dagokienez.

Aipatu araudia aplikatuta, egindako aldaketa handien eta Europako funts berrien sorreraren ondorioz, EAeko Erakunde Ordaintzailea eratzen duen urriaren 3ko 194/2006 Dekretua onartu eta argitaratu zen. Dekretu horrek irailaren 26ko 425/1995 Dekretua indargabetu zuen, Europako Erkidegoko nekazaritza-politikak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen gastuak ordaintzeko erakundeak eratu eta horren antolaketa eta funtzionamendua ezarri zuena.

Aipatu dekretuan, antolaketa eta funtzionamendua ezartzeaz gain, Nekazaritzako Europako Berme Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen Erakunde Ordaintzailea eratu zen Euskal Autonomia Erkidegoan. Araua bera izan zen Erakunde Ordaintzailearen sorrera-egintza.

Aipatu araudia aplikatuta, Eusko Jaurlaritzaren 2006ko urriaren 10eko Gobernu Kontseiluaren erabakiz, urriaren 3ko 194/2006 Dekretuaren bitartez eratutako Erakunde Ordaintzailea baimendu zen. Baimena hiru urtean behin berrituz joan da.

2013. urtetik aurrera, aldatu egin ziren Europako araudia eta oinarrizko araudi aplikagarria, eta, horren ondorioz, urriaren 3ko 194/2006 Dekretua indargabetu, eta abenduaren 9ko 275/2020 Dekretua onartu eta argitaratu zen, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen Erakunde Ordaintzailearen antolamendua eta funtzionamendu-araubidea ezartzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrenbestez, egokitu egin zen Europar Batasuneko araudi berrira (1306/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, abenduaren 17koa) eta martxoaren 2ko 92/2018 Errege Dekretura (Erakunde ordaintzaileen eta NBEF eta LGENF Europako funtsekiko koordinazioaren araubidea erregulatzen duena).

2021/2115 (EB) Erregelamenduak nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egin behar dituzten plan estrategikoetarako (NPBren plan estrategikoak) laguntzari buruzko arauak ezartzen ditu –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetan (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako

Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta, eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen ditu. Erregelamendu horren bidez, Nekazaritza Politika Erkidea (NPE) nabarmen aldatu da, emaitzetan eta merkatuan arreta handiagoa jarritz.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduak (Nekazaritza Politika Bateratuaren finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa da, eta 1306/2013 (EB) erregelamendua indargabetzen du) nekazaritza politika erkidearen finantzaketari aplikatu beharreko baldintzak eta arau berariazkoak ezartzen ditu.

Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/127 (EB) Erregelamendu Eskuordetuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2016 (EB) Erregelamendua osatzen du honako gai hauei dagokienez: erakunde ordaintzaileak eta beste organo batzuk, finantza-kudeaketa, kontuen likidazioa, bermeak eta euroaren erabilera. Era berean, erakunde ordaintzaile batek baimendua izateko izan behar dituen antolaketa administratiboa eta barneko kontrol sistema jasotzen ditu, eta zerbitzu edo erakunde bati erakunde ordaintzaile izateko baimena emateko zer irizpide aztertu behar diren ezartzen du.

Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/128 (EB) Exekuzio Erregelamenduak, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamenduaren aplikazio-xedapenak ezartzen baitira erakunde ordaintzaileei eta bestelako organoei, finantza-kudeaketari, kontu-likidazioari, kontrolei, bermeei eta gardentasunari dagokienez, bere 2. artikuluan, alderdi horien gainean egin beharreko ikuskapen jarraitua ezartzeaz gain, betebeharrak ezartzen dio baimena emateko eskumena duen agintaritzari: hiru urtean behin idatziz jakinaraziko dizkio Batzordeari egin dituen ikuskapen- eta jarraipen-lanak, eta ikuskatutako erakunde ordaintzaileak baimen-irizpideak betetzen dituela egiaztatuko du.

Azkenik, 92/2018 Errege Dekretua indargabetuta geratu da 2022ko abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren bidez (1046/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren eta NBEF eta LGENF Nekazaritzako Europako Funtzen gobernantza arautzen duena). 1046/2022 Errege Dekretuak xedatzen du, alde batetik, autonomia-erkidego bakoitzean erakunde ordaintzaile bakarra egon behar dela, eta, bestetik, autonomia-erkidego bakoitzari dagokiola erakunde ordaintzailea baimentzeko eskumena duen agintaritzak zehaztea.

Baimen horri eutsiko zaio, eta Europako Erkidegoaren araudi berrira egokitzeko xedez, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretu hori aldatuko da.

Bestalde, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzako laguntzei buruzko azaroaren 15eko 233/2011 Dekretua («Elkarteak» Programa) ez datorrela bat haren eremu materialean indarrean dagoen araudiarekin, ezta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasota dauden administrazio publikoen jardunaren prozedurazko alderdiak arautzen dituen araudiarekin ere, eta kontuan hartuta 2023. urtean dirulaguntzen deialdia indarrean dagoen araudiaren arabera egitea ahalbidetu behar dela, premiazkoa da aurreko dekretua indargabetzea, eta horregatik sartzen da arau honetan.

Dekretu hau Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitako erregulazio onaren printzipioetara egokitzen da. Hala, premia- eta efikazia-printzipioei dagokienez, araua justifikatua dago, zioen azalpenetan aipatu den Europako araudia betetzen dela bermatzea interes orokorrekoa baita.

Proportzionaltasun-printzipioa betetzen da, lehen aipatutako premiari erantzuteko beharrezkoa den erregulazioa jasotzen baitu, baita indarrean dagoen araudia biltzen duelako ere. Kontuan hartzen bada arauak printzipio hori indartzen duela, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen da, arlo horretako araudiarekin koherentea delako.

Azkenik, efizientzia-printzipiora ere egokituta dagoela ondoriozta daiteke proiektu honek ez duelako ezartzen administrazio-karga erantsirik edo beharrezkoa ez denik.

Dekretu hau prestatzean, kontsulta egin zaie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-aldundiei.

Horren ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritz, eta 2023ko irailaren 19ko Gobernu Kontseiluak gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Abenduren 9ko 275/2020 Dekretuan, zeinaren bidez Europako Berme Funtsak (NEBF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen Erakunde Ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan, d) apartatua eransten zaio 2. artikuluari:

«d) Errendimendu-txostenak egitea: gauzatze-adierazleei buruzko errendimendu-txostenak egitea, errendimenduaren urteko likidazioaren eta errendimenduaren urte anitzeko jarraipenerako emaitzen adierazleei buruzko errendimendu-txostenen ondorioetarako, Europar Batasuneko araudiaren eskakizunekin bat etorritz.»

Bigarren artikulua.– Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan, zeinaren bidez Nekazaritzako Europako Berme Funtsak (NEBF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan, honela geratzen da idatzita 4. artikulua 1. paragrafoa:

«1.– Ordainketak gauzatzea, ordainketen kontabilitatea, errendimendu-txostenak eta barne ikuskaritza zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak gauzatuko dituen zerbitzuak eta eginkizunak izango dira, eta zuzenean eta eskuordetzeko aukerarik gabe burutuko ditu.»

Hirugarren artikulua.– Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan, zeinaren bidez Nekazaritzako Europako Berme Funtsak (NEBF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan, honela idatzita geratzen da 6. artikulua:

«6. artikulua.– Egiatzen Erakundea.

1.– Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, EAEko «agintaritza eskuduna» den aldetik, izendatu eta baimendu duen Egiatzen Erakundeak, aplikatu beharreko Europako araudian ezarritakoarekin bat, irizpen bat emango du, nazioartean onartutako auditoretza-arauen arabera egingo dena; irizpen horretan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 21eko 2021/2016 (EB) Erregelamenduaren 12.2 artikuluan jasotako alderdiak zehaztuko dira.

2.– Egiaztapen Erakundeak bere ondorioak jasotzen dituen txosten bat egingo du, Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/128 Exekuzio Erregelamenduaren 5.4 artikuluko xedapenekin bat etorritik. Erakunde ordaintzaileari eskuordetutako eginkizunak ere jasoko ditu txostenak, Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/127 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskinaren 1.D) atalaren arabera.».

Laugarren artikulua.– Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan, zeinaren bidez Nekazaritzako Europako Berme Funtsak (NEBF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan, honela idatzita geratzen da 7. artikulua:

«7. artikulua.– Agintaritza eskuduna.

1.– Nekazaritza Politika Erkidearen arloan eskumena duen saileko titularra da Euskal Autonomia Erkidegoko «agintaritza eskuduna» Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea baimentzeko, gainbegiratzeko eta kontrolatzeko.

2.– «Agintaritza eskudunak» gainbegiratuko du, Europar Batasuneko araudiak ezartzen duen moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen funtzionamendua zuzena den, bai eta baimentze-irizpideak betetzen jarraitzen den ere.

3.– Laguntza eta lankidetzaren emango dio egiaztapen-erakundeari, honetarako:

a) Ziurtatzea eskuratzen dela erakunde ordaintzailearen eta Europako Batzordearen informazio guztia.

b) Erakunde ordaintzailearen eta egiaztapen-erakundearen arteko bitartekari gisa jardutea, urteko kontuetarako eta errendimenduaren urteko txostenerako beharrezkoa den informazioa atzerapenik gabe aurkezten dela ziurtatuz.

c) Bitartekari gisa jardutea egiaztapen-erakundearen eta erakunde ordaintzailearen arteko desadostasunak daudenean.

d) Europako Batzordeak egindako gomendioen jarraipena egitea, dela finantza-likidazioaren prozeduran, dela adostasun-likidazioaren prozeduran.

e) Bermatzea betetzen direla Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan ezarritako eginkizunak.

4.– Europako Batzordearekiko solaskide gisa parte hartuko du izen bereko aditu-taldean.»

Bosgarren artikulua.– Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan, zeinaren bidez ezartzen baita Nekazaritzako Europako Berme Funtsak (NEBF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan, honela idatzita geratzen da 12. artikulua:

«12. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak zuzenean gauzatuak eginkizunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak zuzenean garatuko du merkatuak arautzera edo laguntzera bideratutako neurrien ordaintzak baimentzeko eginkizuna, arlo horietan eskumena duten zuzendaritzen bidez.»

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Arau-erreferentziak.

1.– Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan nekazaritzaren eta elikaduraren arloan eskumena duen sailari egiten zaizkion erreferentziak nekazaritza-politika erkidearen arloan eskumena duen sailari egiten zaizkiola ulertuko da.

2.– Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan Nekazaritza Politika Erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 Erregelamenduari egiten zaizkion erreferentziak (1306/2013 Erregelamendua Kontseiluaren 352/78 (EE), 165/94 (EE), 2799/98 (EE), 814/2000 (EE), 1290/2005 (EE) eta 485/2008 (EE) erregelamendua indargabetzen ditu) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduari egiten zaizkiola ulertzen da (2021/2116 Erregelamendua Nekazaritza Politika Erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa da, eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen du).

3.– Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan Batzordearen 2014ko martxoaren 11ko 907/2014 Erregelamendu Eskuordetuari egiten zaizkion erreferentziak (907/2014 Erregelamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EB) Erregelamendua osatzen du, erakunde ordaintzaileei eta beste organo batzuei, finantza-kudeaketari, kontuen likidazioari, bermeei eta euroaren erabilerari dagokienez) Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/127 (EB) Erregelamendu Eskuordetuari egiten zaizkiola ulertzen da (2022/127 Erregelamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamendua osatzen du, erakunde ordaintzaileei eta beste organo batzuei, finantza-kudeaketari, kontuen likidazioari, bermeei eta euroaren erabilerari buruzko arauekin).

4.– Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan Batzordearen 2014ko abuztuaren 6ko 908/2014 Exekuzio Erregelamenduari egiten zaizkion erreferentziak (908/2014 Erregelamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu, organismo ordaintzaileei eta beste erakunde batzuei, finantza-kudeaketari, kontuen likidazioari, kontrolei, bermeei eta gardentasunari dagokienez) Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/128 (EB) Exekuzio Erregelamenduari egiten zaizkiola ulertzen da (2022/128 Erregelamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen ditu, erakunde ordaintzaileei eta beste organo batzuei, finantza-kudeaketari, kontuen likidazioari, kontrolei, bermeei eta gardentasunari dagokienez).

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da azaroaren 15eko 233/2011 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresariari zuzendutako laguntzei buruzkoa («Elkartek» programa), baita dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo apalagoko xedapenak ere.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 19an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.